

ENPRESEN konfiantza

2020KO 3. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL
kutxa


2020KO 3. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, 2020ko hirugarren hiruhilekorako dituzten igurikimenen berri izateko. COVID-19ak ekarri duen osasun-krisiaren eraginez, igurikimenok negatiboak dira; izan ere, jarduera produktiboa geldiarazi duten muturreko neurriak hartu behar izan dira maila globalean. Uneotan, neurriak atzerabidean dira herrialde gehienetan, eta funtsezkoa izango da normaltasun berrirako itzulera nola egingo den aztertzea. Edonola ere, egoera ikusita, enpresek zalantzaz eta zailtasunez betetako panorama dute aurrean.


Enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten aurreikuspenei dagokienez, % 81,3k uste du egoerak okerrera egingo duela oraingo hiruhilekoan* dagoenarekin alderatuta. Beraz, ekonomiaren bilakaeraren gaineko ikuspegi negatiboa da nagusi.



*Aurreikuspenei buruzko egungo hiruhilekoko inkesta otsailaren erdiko asteetan egin zen, hau da, COVID-19aren ondorioz hartutako konfinamendu-neurriak martxan jarri baino hilabete lehenago. Inkesta honetako galderak hirugarren hiruhilekorako aurreikuspeni buruzkoak dira, egungo hiruhilekoko (urteko 2. hiruhilekoko) egoerarekin alderatuta.


1 | FAKTURAZIOA

Enpresek fakturazioaren harira dituzten aurreikuspenek okerrera egin dute 2020ko hirugarren hiruhilekoari begira: % 71,6ren ustez fakturazioa apalagoa izango da, eta % 20,6ren iritziz berdintsua. Enpresen % 7,8k uste du fakturazioa hobea izango dela.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2020ko hirugarren hiruhilekoan espero den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 75,8k uste du egoerak okerrera egingo duela, eta % 7k, berriz, hobera egingo duela. Gainerako % 17,2ak uste du jardueran ez dela aldaketarik izango.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute saldutako kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Emaitzek diote eskabide-mailan gainbehera izango dela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 72,4k uste du bolumenak behera egingo duela, eta % 8,3k hohera egingo duela. Enpresen % 19,3ren iritziz eskabideen bolumena egungo hiruhilekokoaren antzekoa izango da.




4 | PREZIOAK

Era berean, prezioei dagokienez, inkesta egin dutenen % 43,5ek uste du behera egingo dutela, eta % 55,2ren ustez prezioek bere horretan jarraituko dute.



5 ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen errentagarritasunaren inguruko aurreikuspeni dagokienez, inkestari erantzun diotenen % 57,3k etekin txikiagoak espero ditu, enpresen % 40,6ren iritziz errentagarritasunak «berdin» jarraituko du eta % 2,1en ustez handiagoa izango da.



6 | INBERTSIOA


Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera **aurreko hiruhilekoan** baino txarragoa da. Eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek etorkizuna argitu arte atzeratu dituztela inbertsio-planak; izan ere, egungo egoeran gehiegizko ahalmena dutela uste dute.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 52,6ren iritziz behera egingo du **2020ko hirugarren hiruhilekoan**. % 8,9k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Beraz, inkesta egin duten enpresen % 38,5ek uste du eutsi egingo diotela.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 64,8k erantzun du enpleguan ez dutela aldaketarik espero; % 31,5ek langile-taldea murriztu egingo duela uste du, eta % 3,6k guztiz kontrakoa, plantilla handitu egingo duela.




2020KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu konfiantza-indizea eskuratzeko, emaitza hau lortuko dugu: **22,6** (segida historikoko baliorik txikiena). Beraz, aurreko hiruhilekoko **51,6**ko datuarekin alderatuta behera egin du. Horrek esan nahi du ekonomiaren bilakaerari buruz enpresek ikuspegi ezkorra dutela **2020ko hirugarren hiruhilekoari** begira. Indizearen balioa 50etik behera dagoenez, uzkurdua-eremuan (atzeraldian) gaude, beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin bat. Espainian, esaterako, martxoko eta apirileko batez besteko datua 18koa izan zen, eta Eurogunean 30,5koa maiatzean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % **61,6**k uste du txarrera egin duela, eta % **8,2**k hobera egin duela. % **30,1**en iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitu dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 78,1 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 5,8k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 | BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 62,1entzat, BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAN ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 31,8ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 6,1ek erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 62,4k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 21,6k dio hobetu egin dela, eta % 16,1ek lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2020AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Hurrengo irudian ikus daitezke aztertutako azken bi hiruhilekoetako adierazle partzialen eta aurreikuspen orokorraren balioak.

Enpresen aurreikuspenak



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta
